



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 30a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuaren 2013ko Kontuei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren 2013ko Kontuei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Parlamentuaren 2013ko Kontuei buruzko aholkularitza txostena, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014sko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuaren 2013ko Kontuei buruzko aholkularitza txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Nafarroako Parlamentua (3. or.).
 - II.1. Kideak eta funtzionamendua (3. or.).
 - II.2. Araubide ekonomikoa (3. or.).
 - II.3. Langileak (3. or.).
 - II.4. Araudia (3. or.).
- III.** Helburuak eta norainokoa (4. or.).
- IV.** Iritzia (4. or.).

Eranskinak

1. eranskina. 2013ko ekitaldiko kontuen egoerari buruzko txostena (5. or.).
2. eranskina. Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu-gastuen bilakaera 2002-2013 epean (11. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2014ko martxoaren 17an hartutako Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, Nafarroako Parlamentuaren 2013ko kontu orokorreari buruzko aholkularitza txosten hau prestatu da; kontu horiek 2014ko martxoaren 21ean jaso zituen ganbera honek.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuten, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Azterketa-lana 2014ko maiatzean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO PARLAMENTUA

II.1. KIDEAK ETA FUNTZIONAMENDUA.

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du eta bere esku du legegintzako ahalmena.

50 parlamentarik osatzen dute. 2011ko ekainaren 15ean egin zuten Parlamentuak eratzeko bilkura, zortzigarren legegintzaldiari hasiera emateko; sei talde politiko dira, 2011ko maiatzaren 22an izandako hauteskundearen emaitzen ondorioz.

Parlamentuak Osoko Bilkuraren eta batzordeen (arrunt edo berezien) bitartez funtzionatzen du. Gobernu-organoak Lehendakaria, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira.

II.2. ARAUBIDE EKONOMIKOA

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren zati bat dira.

2013ko ekitaldirako aurrekonturik ez zen onetsi, eta 2012koa luzatu zen. Diru-sarreraren eta gastuen 12.733.648 euroko aurreikuspenak dauzka.

2013an aitortutako betebeharrak 10.513.749 milioi eurokoak izan ziren, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 82 eta 2012an sortutakoak baino ehuneko bi gehiago. Langile-gastuek betebeharrak guztien ehuneko 57 egiten dute.

2013an aitortutako eskubideak 12.344.100 eurokoak izan ziren, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 96 eta 2012an sortutakoak baino ehuneko lau gehiago. Diru-sarrera horien ehuneko 94 Foru Administrazioetik jasotako transferentzia arruntak dira.

2013ko ekitaldirako aurrekontu doituaren emaitza 1.938.702 eurokoa izan zen; horietatik, 1.802.469 euro Foru Ogasunari itzuli zitzaizkion.

II.3. LANGILEAK

2013rako langileen plantilla organikoa ez zen onetsi. Onetsi zen azken plantilla 2011koa da.

2013ko abenduaren 31tik aurrera, Parlamentuan 67 pertsonak egiten zuten lan: 44 funtzionario, administrazio-kontratua zuten zortzi pertsona eta behin-behineko kontratua zuten 15 pertsona.

II.4. ARAUDIA

Nafarroako Parlamentuari 2013an aplikatzekoa zaion araudia ondoko hau da, besteak beste:

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

Parlamentarien ordainsarien araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.

Lanaren helburuak hauek dira:

- Egiatzatzea ea Nafarroako Parlamentuaren 2013ko ekitaldiko Kontuak, bere alderdi nagusi guztietan, behar bezain irudi doia erakusten duten 2013ko abenduaren 31n erakunde horrek zeukan ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Nafarroako Parlamentuak 2013ko ekitaldian izan duen jardueran indarrean dagoen legedia bete duen egiatzatzea.

Txostenaren norainokoa, 2013. urteko Kontuak dira; horiek prestatzeko eginkizuna eta horien edukia Parlamentuaren ardura dira; kontu horietan kontabilitateko egoera-orriak sartzen dira: aurrekontuaren likidazio-egoera, balantzea, ekonomia- eta ondare-emaizako kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, eskudiru-fluxuen egoera eta oroitidazkia.

Lan hori Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

IV. IRITZIA

Gure iritzian, Nafarroako Parlamentuaren 2013ko ekitaldiko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastuen eta aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasota dauden kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Orobat, 2013ko ekitaldian zehar, Nafarroako Parlamentuaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko ekainaren 10ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. 2013KO EKITALDIKO KONTUEN EGOERA-ORRIAK**I. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA.**

Gastuen Aurrekontuaren Likidazioa

Kontzeptua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordaintze dagoena	Kreditu-gerakina
1. Langile-gastuak	6.614.689	0	6.614.689	6.004.297	91	6.004.297	0	610.392
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.421.966	88.703	2.510.669	1.428.038	57	1.316.367	111.671	1.082.631
4. Transferentzia arruntak	3.031.737	0	3.031.737	2.803.704	92	2.773.773	29.931	228.033
6. Inbertsio errealak	518.210	59.649	577.859	241.864	42	188.344	53.520	335.995
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	35.846	62	35.846	0	21.949
9. Finantza-pasiboak	89.449	-40.000	49.449	0	0	0	0	49.449
Gastuak, guztira	12.733.846	108.352	12.842.198	10.513.749	82	10.318.627	195.122	2.328.449

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	82.439	2882	82.439
4. Transferentzia arruntak	12.050.532	0	12.050.532	11.661.651	97	11.661.651
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	53.353	356	53.353
7. Kapital-transferentziak	634.849	0	634.849	510.294	80	510.294
8. Finantza-aktiboak	30.010	108.352	138.362	36.363	26	36.363
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	12.733.846	108.352	12.842.198	12.344.100	96	12.344.100

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doikuntzak	Zenbatekoa
a. Eragiketa arruntak	11.797.443	10.236.039		1.561.404
b. Kapital-eragiketak	510.294	241.864		268.430
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	12.307.737	10.477.903		1.829.834
c. Finantza-aktiboak	36.363	35.846		517
d. Finantza-pasiboak	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	36.363	35.846		517
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	12.344.100	10.513.749		1.830.350
Doikuntzak				
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			108.352	
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak				
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak				
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			108.352	
Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)				1.938.702

2. DIRUZAINZA-GERAKINA

Osagaiak	2013	2012
1. Funts likidoak	2.469.167	2.843.851
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	2.320	471
(+) Aurrekontu korrontetik		0
(+) Aurrekontu itxietatik		0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.320	471
(+) Merkataritzako eragiketetatik		0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.335.254	2.735.970
(+) Aurrekontu korrontetik	195.123	152.971
(+) Aurrekontu itxietatik		0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	2.140.131	2.582.999
(+) Merkataritzako eragiketetatik		0
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+-2-3)	136.233	108.352
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	136.233	108.352
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	0	0

3. BALANTZEA

	2013	2012
AKTIBOA, GUZTIRA	21.233.591	22.115.421
A) Aktibo ez-korrontea	18.741.035	19.255.242
I. Ibilgetu ukiezin garbia	151.333	118.779
3. Aplikazio informatikoak	150.861	118.110
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	472	669
II. Ibilgetu material garbia	18.537.101	19.078.133
2. Eraikinak	16.539.513	17.091.801
5. Bestelako ibilgetu materiala	1.997.588	1.986.332
Makineria eta tresnak	248.195	290.027
Altzariak	88.404	118.448
Informazio-prozesuetako ekipoak	160.959	116.887
Garraio-osagaiak	0	0
Bestelako ibilgetu materiala	1.500.030	1.460.970
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	52.601	58.330
4. Bestelako finantza-inbertsioak	52.601	58.330
Epe luzeko maileguak	52.601	58.330
B) Aktibo arrunta	2.492.556	2.860.179
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	2.320	471
3. Administrazio publikoak	2.320	471
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	2.320	471
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	21.069	15.856
4. Bestelako finantza-inbertsioak	21.069	15.856
Epe laburreko maileguak	21.069	15.856
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.469.167	2.843.851
2. Diruzaintza	2.469.167	2.843.851

	2013	2012
PASIBOA, GUZTIRA	21.233.591	22.115.421
A) Ondare garbia	18.897.954	19.379.068
I. Ekarrirako ondarea	18.761.721	19.270.716
Ondarea	12.057.436	12.566.431
Lagapen gisa jasotako ondarea	0	3.000
Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.701.285
II. Sortutako ondarea	136.233	108.352
2. Ekitaldiko emaitzak	136.233	108.352
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	136.233	108.352
B) Pasibo ez-korrontea	0	0
C) Pasibo korrontea	2.335.637	2.736.354
II. Epe laburreko zorrak	384	384
4. Bestelako zorrak	384	384
Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	384	384
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.335.253	2.735.970
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	195.123	152.971
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurrekontu arruntean	195.123	152.971
3. Administrazio publikoak	2.140.130	2.582.999
Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela eta	257.953	0
Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	0	10.297
Ogasun publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela eta	0	540
Gizarte Segurantzaren hartzekodun	79.708	78.982
Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketak direla eta	1.802.469	2.493.180

4. EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAKO KONTUA.

	2013	2012
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.171.945	12.685.381
a) Ekitaldikoak	12.171.945	12.685.381
a.2) Transferentziak	12.171.945	12.685.381
Gobernuaren kapital-transferentziak	510.294	634.849
Gobernuaren transferentzia arruntak	11.661.651	12.050.532
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	0
Argitalpenen salmenta	0	0
6. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	82.439	75.656
Itzulketak	82.439	75.656
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira	12.254.384	12.761.037
8. Langile-gastuak	6.072.902	5.888.393
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.231.779	5.060.404
Soldatak eta ordainsariak	2.426.092	2.254.314
Behin-behineko langileen soldatak	458.267	434.979
Funtzionarioen soldatak	2.256.568	2.229.414
Kontratupeko langileen soldatak	22.248	61.273
Parlamentarien dietak eta garraioak	3.190	7.824
Bestelako dietak eta garraioak	12.998	15.772
Langileen bestelako gizarte-gastuak	32.491	37.464
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	19.925	19.364
b) Gizarte-zamak	841.123	827.989
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzak	841.123	827.989
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.803.704	2.940.551
Transferentzia arruntak	2.803.704	2.940.551
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.359.433	1.267.849
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.211.703	1.047.890
c) Beste batzuk	147.730	219.959
12. Ibilgetuaren amortizazioa	748.329	837.319
B) Kudeaketa arrunteko gastuak guztira	10.984.368	10.934.112
I. Kudeaketa arrunteko emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)	1.270.016	1.826.924
13. Ibilgetuaren galerak	2.014	0
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.268.002	1.826.924
15. Finantza-sarrerak	53.353	13.543
b.2) Bestelakoak	53.353	13.543
Interesak	53.353	13.543
III. Eragiketa finantzarioen emaitza	53.353	13.543
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia)	1.321.355	1.840.467

5. ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak	2013	2012
A) Kobrantzak	12.307.737	12.774.580
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.171.945	12.685.381
Gobernuaren kapital-transferentziak	510.294	634.849
Gobernuaren transferentzia arruntak	11.661.651	12.050.532
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	0
Argitalpenen salmenta	0	0
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	53.353	13.543
Interesak	53.353	13.543
6. Beste kobrantza batzuk	82.439	75.656
Itzulketak	82.439	75.656
B) Ordainketak	12.492.745	12.775.220
7. Langile gastuak	5.735.240	5.798.574
Lehendakaritzaren eta parlamentarien soldatak eta lansariak	2.426.092	2.254.314
Behin-behineko langileen soldatak	458.267	434.979
Funtzionarioen soldatak	1.998.614	2.218.577
Kontratupeko langileen soldatak	22.248	61.273
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	761.414	749.007
Parlamentarien dietak eta garraioak	3.190	7.824
Bestelako dietak eta garraioak	12.998	15.772
Beste langile gastu batzuk	32.491	37.464
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	19.925	19.364
8. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.773.773	2.877.503
Transferentzia arruntak	2.773.773	2.877.503
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.247.762	1.198.752
Errentamenduak	2.102	2.263
Konponketa eta kontserbazioa	265.893	250.230
Hornidurak	231.232	213.380
Komunikazioak	60.272	62.622
Beste enpresa batzuek egindako lanak	549.299	455.456
Garraio-gastuak	6.144	8.004
Bulegoko materiala	22.458	43.845
Zenbait gastu	110.361	162.952
13. Bestelako ordainketak	2.735.971	2.900.390
Aurrekontu arrunteko hartzekodunak	152.971	155.164
Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	2.493.180	2.673.576
Gizarte Segurantza hartzekodun	78.982	71.650
Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	10.297	
Ogasun publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela eta	540	
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A-B)	-185.008	-640

II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak	2013	2012
C) Kobrantzak	42.539	60.965
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	42.539	60.965
Epe luzeko maileguak	17.447	16.536
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	18.916	18.758
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	6.176	25.671
D) Ordainketak	232.215	191.621
4. Inbertsio errealen erosketa	188.344	123.366
5. Finantza-aktiboekiko eragiketak	0	796
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	43.871	67.459
Epe luzeko maileguak	11.718	23.436
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	24.128	22.440
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	8.025	21.583
Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (C-D)	-189.676	-130.656
VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V)	-374.684	-131.296
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	2.843.851	2.975.147
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	2.469.167	2.843.851

6. ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN OROBATEKO EGOERA

	I. Ekarrirako ondarea	II. Sortutako ondarea	Guztira
A. Ondare garbia 2012ko ekitaldiaren bukaeran	19.379.068	0	19.379.068
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	0	0	0
C. 2013ko ekitaldiaren hasierako ondare garbia	19.379.069	0	19.379.068
D. 2013ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	-508.995	27.881	-481.114
1. Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		136.233	136.233
3. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-508.995	-108.352	-617.347
E. Ondare garbia 2013ko ekitaldiaren amaieran	18.870.073	27.881	18.897.955


2. ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN AURREKONTU-GASTUEN BILAKAERA 2002-2013 EPEAN (EURO KONSTANTETAN)

(Euroak, milakotan)

Gastuak (euro konstantetan)	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Langile-gastuak	2.947	3.340	3.526	3.722	3.888	4.810	6.644	6.699	6.381	5.978	5.808	6.004
Ondasun arruntak et; zerbitzuak erostea	2.330	2.493	2.915	2.902	3.878	2.127	1.753	1.771	1.643	1.472	1.348	1.428
Transferentzia arruntak	2.387	2.312	2.738	2.769	2.920	2.866	2.815	2.977	3.023	2.983	2.941	2.804
Inbertsio errealak	13.335	1.797	387	728	263	884	290	264	406	285	144	242
Finantza-aktiboak	63	61	47	55	60	57	36	31	46	52	46	36
Finantza-pasiboak	2	5	1	2	0	0	3	0	0	0	1	0
Guztira	21.064	10.008	9.614	10.178	11.009	10.744	11.541	11.742	11.499	10.770	10.288	10.514

(Euroak, milakotan)

Diru-sarrerak (euro konstantetan)	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	11	107	37	52	21	57	59	40	78	79	76	83
Transferentzia arruntak	7.805	9.831	10.115	10.660	11.077	11.981	12.908	13.201	13.155	12.628	12.051	11.662
Ondare bidezko diru-sarrerak	231	72	50	54	82	151	209	38	23	42	13	53
Kapital-transferentziak	7.948	2.749	1.446	1.290	1.466	1.097	1.026	872	1.066	717	635	510
Finantza-aktiboak	47	54	66	59	49	45	48	46	47	44	35	36
Finantza-pasiboak	5	1	3	3	0	0	1	0	0	0	0	0
Guztira	16.047	12.814	11.717	12.118	12.695	13.331	14.251	14.197	14.369	13.510	12.810	12.344



2002ko gastua bat dator Parlamentuaren egoitza berrirako eraikina egiteko lanekin

